

**GUNTHER RAUTZ**

«Itxiera prentsa askatasunaren eta Espainiako Konstituzioaren aurkako eraso izan zen»

**JOAN MARI TORREALDAI**

«Elkartuago, babestuago, indartuago ez bagaude, nola ez dira berriz etorriko?»

**XABIER MENDIGUREN**

«Erasoaren kontra agertu ziren alderdi eta sindikatuek bat egin dute akordio beharrezkin»

● Hitzaldiak



XABIER MENDIGUREN Kontseiluko idazkaria, Joan Mari Torrealdei Egunkaria SAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria, Gunther Rautz MIDASeko idazkaria eta Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendari ohia izan ziren atzo Martin Ugalde Kultur Parkeko ekitaldian hizlari. JON URBE / ARGAZKI PRESS

GUNTHER RAUTZ
(MIDAS-EKO IDAZKARIA)

«Gogora etortzen dira Espainia eta Europako garai ilunenak»

«2003ko otsailaren 20an, *Egunkaria*-ko hamar lagun atxilotu zituzten. Guardia Zibilaren arabera, kazetariak ETAko kideak ziren, eta terroristen laguntzaile. Jose Maria Michavila Espainiako Justizia ministroak esan zuenez, *Euskaldunon Egunkaria* ETaren jardun terroristan zebilen. [...] EAeko Gobernuak osatzen duten alderdiek gogor salatu zuten ekintza, egunkaria itxtea 'prentsa askatasunaren eta euskal gizartearen aurkako eraso' zela esanez. [...] MIDASek (Eremu Urriko Hizkuntzetan idatzitako Egunkarien Europako Elkarteak) elkartasuna adierazi nahi dio *Egunkaria*-ri. Toni Ebner MIDASeko lehendakari eta *Dolomiten* egunkariko zuzendariaren iritziz, itxiera 'prentsa askatasunaren eta Espainiako legezketasun konstituzionalaren aurkako eraso' izan zen. [...] Poliziaren indarrez egunkari baten egoitzan sartzeak, egunkariko zuzendaria eta administrazioako langileak espetxeratzeak eta gutxiengo baten prentsa adierazpidea zantpatzeak, susmo hutsetan oinarrituta, Espainiako eta Europako historiako garai ilunenak dakartzkigu gogora. [...] MIDASek Europako Legebiltzarreko Eskara Batzordea jo du, eta *Egunkaria* berehala zabalteko eskatu du, eta, MIDASeko zuzendariaren kide den aldetik, Iñaki Uriaren aurkako salaketak aztertuko dituen batzorde independente bat izendatzeko».

JOAN MARI TORREALDAI
(EGUNKARIA SA-KO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA)

«Kultur industriak sustatzen dituztenak babestu behar dira»

«Bihotzetik mihira datorkidan sentimendua hitz batekin laburbil dezake: mila esker. [...] Eskerrik asko hilerok bildu zaretelako atxilotuen askatasuna eskatzera, gurea lehen orduan, eta Iñaki eta Xabierren orain. [...] BERRIARI esker, herri eta eskualdeetako *Hitza* egunkariei esker, ez da antzua izan *Egunkaria*-n egindako lana. Ez dakizue zenbatekoa den poz horren handia. [...] Iazko otsail eta urriko egunkariak begiratu ditut, eta badakizue zer aurkitu dudana: aldarrikapenak eragile sozial, politiko eta kulturalen hitzetan. Eta hitz giltzarri batzuk: batasuna, elkarlana, hitzarmen estrategikoa, adostasun programatikoa. Biharamunik gabeko asmoa ote? Beldur naiz ez dugula behar adina sakondu bide horretan. [...] Ez ahal da beste kolperik etorriko! Baina, baletor, hona galdera: duela urtebete edo lau hilabete baino hobeto al gaude? Babestuago (instituzionalki, politikoki, sozialki, enpresarialki, kulturalki)? Indartuago? Elkartuago? Elkartuago, babestuago, indartuago ez bagaude, nola ez dira berriz etorriko? [...] Gizarte zibil eta antolatua inizatiba hartu behar du, eta politikariei eta erakundeiei exijitu bai, baina baita apustua egin ere, kultur industriak sortu, sustatu eta bultzatzen dituztenak babeste aldera, adostasunak lantzerako eta elkarlana bideratzera».

XABIER MENDIGUREN
(KONTSEILUKO IDAZKARIA)

«Akordio zabal baten inguruan baikor izateko zioak daude»

«Duela urtebete hemen elkartu ginen, Martin Ugalde Parkean sartu ezinik; gertatzen ari zena eta atxilotuak jasaten ari ziren tratua jakin gabe. Susmo txarrenak bete ziren, *Egunkaria* itxi zutenean eta atxilotuek jasandako tratua txarren berri jaso genuenean. [...] Elkartasun uholde izugarria abiatu zen. Eskaera zehatzak ere egin ziren. [...] Euskararen normalizazioaren aldeko eta euskararen gizarte erakunde babesarako konpromisoa eskatu zitzaizkien alderdi politikoei, instituzioei, sindikatuei eta gainontzeko eragile sozialei. [...] Orain, *Egunkaria* ez, baina BERRIA jasotzen dugu, *Egunkaria*-ko langile ohien lanari esker, bereziki, eta euskal herritarren lan itzelagatik. Egun horietako helburuetako bat bete da. [...] Kontseiluak konpromisoa hartu zuen, akordio sozio-politiko aurrera ateratzeko. Erasoren kontra agertu ziren alderdiek eta sindikatuek bat egin dute akordio beharrezkin. Inork ez du ukatzen akordio zabal beharrezkoa dela, eta denok lanean ari gara, Akordio sozio-politiko lortzeko. Urrats batzuk egin hasita gaude eta baikor izateko arrazoiak ikusten ditut, eta espero dut epe batean zerbait garrantzitsua aterako dela. [...] Ez dut bukatu nahi Uriaren eta Alegriaren askatasuna eskatu gabe. Bi lagun hauek gure artean ez daudenetik urtebete pasatu da, beste urtebete pasa ez dadin!»

● Politikarien ikuspuntua

GORKA KNÖRR (EA)

«Soluziobide iraunkor bat asmatu behar dugu»

«Badirudi ez dutela hasitako erasoan etsi behar, eta kezkatzekoa da. Ea kapaz garen denon artean soluziobide iraunkor bat asmatzeko, hor dago gakoa. Susmoetan oinarrituta, sekulako bidegabekeriak ari dira egiten Euskal Herrian. Gure etxea nola babestu asmatu behar dugu».

ARNALDO OTEGI (Batasuna)

«Arazo berbera daukagu urte bat igaro ondoren»

«Del Olmoren azken erabakiek frogatzen dute arazo berberarekin jarritzen dugula. Euskaldun askoren bizitza Espainiako auzitegien esku dago. Egunkari berri bat daukagu, baina guri esfortzu ikaragarria kostatzen zaiguna haiek sinadura batekin deuseztatzen dute».

ANTTON KARRERA (EB)

«Bat egin behar dugu euskararen defentsan»

«Euskal gizarteak Del Olmori hankasartzea egin zuela erakutsi zion duela urtebete, baina badirudi ildo beretik jarraituko duela. *Egunkaria* itxita mantentzea astakeria handiagotzea besterik ez da. Euskara batasunaren bidetik defendatu behar dugu».

XABIER SARASUA (Aralar)

«Oinarrizkoa da estrategiak lantzea»

«Euskal Herriaren kontrako erasoak jarraitu egingo du, antza denez, eta horren aurrean bat egin behar dugu. Euskara denona da. Askotan, ordea, ez dugu asmatu horren inguruan elkartzeko. Ondo dago kalera irtetea, baina oinarrizkoa da strategiak lantzea aurrera egiteko».

MARKEL OLANO (EA)

«Euskal kultura ETarekin nahasten dute etengabe»

«Euskal kultura ETarekin nahasi nahian jarraitzen dute Espainiako agintariek. Euskalgintzaren enpresa azpiegitura indartzea funtsezkoa da. Gutxieneko adostasuna lortu behar dugu, nahiz eta egoera politikoa horretarako aproposena ez izan».